

# Irun, Gure hiria

## Ikasitakoaren laburpena



- Irunen muga desberdinak ditugu, 3 Gipuzkoakoak, 2 Nafarrokoak eta beste 3 Frantziakoak.
- Beti esaten zuten San Martzial eta Aiako Harriak mendietara joaten zirela, baina ikasi dute San Martzial ermita, Aldabe mendian dagoela eta Aiako Harriak, parke natural bat dela. Horrez gain, hiru tontor altuen izenez jabetu dira, eta horietatik Irumugarrieta dela Irunen dagoen bakarra.
- Bidasoa ibaiaren iturburua Baztanen dagoela Xorroxin urjauzian. Errekak ere ikusi dituzte, baina bakarrik batzuen izenak ikasi dituzte, ze... zenbat izen dituen erreka bakoitzak!

Asteburuetan ezin ginenez oso urrun joan, saiatu dira gurasoekin eta lagunekin gelan ikusitako lekuak aurkitzen. Adibidez, Aitzondo urjauzia. A zer altua den! Gipuzkoako altuena.

- Faisan uhartea ezaguna zen beraiantzat. Baina egia esan, Irunen eskuetan dagoenean, bisitatzea gustatuko litzaieke. Horrez gain, Santiagotarrak-en parean dauden beste hiru uharteen izenak ikasi dituzte. Hain zuzen ere, Santiagoaurrea, Hiru kanale eta Galera.
- Auzo historikoena ulertzea asko kostatu zaie. Herritar guztioi oso zaila egiten zaigu adibidez, Santiago auzunea Anaka auzoa dela esatea.
- Nahiz eta udaletxea ikastetxearen parean egon eta egunero ikusi, ez zuten inoiz arreta jarri Irungo armarran. Orain badakite gaztelu bat 2 kurriloekin dagoela, kasko bat eta "Vigilantes Custos" jartzen duela.
- Irungo mapa topografikoa ere azertu dute. Eta bakoitzak leku esanguratsu baten lana egin ondoren, mapan kokatu dute. Ficoba, Luis Mariano eskultura, tximeleten museoa, gazteluzar gaztelua, Donaxakue bidea, etab.

Eskolan asko ikasten dute bideoak eta argazkiak ikusten, mapak aztertzen, leihotik edota terrazatik paisaia begiratzen.... Baina gehien gustatzen zaiena elkarrekin irteerak egitea da. 1. hiruhilabetean txango bat egin zuten Ama Xantalen ermitara erromatarren nekropolia ikustera. Ondoren, tren berdean Irugurutzeta meategira hurbildu ziren leihoetatik jendea agurtzen. Gehien gustatu zitzaiena kaskoak jartzea eta aintzinako meategi batean sartzea izan zen dauden mineralak ikustera.